



Horregatik, diputatu nagusiaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, ondokoa

ERABAKI DUT

Lehenego.- Ondoren zerrendatzen diren pertsonak AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOAREN patronatuan (Foru Administrazioari partaidetza ematen dioten erakundeen erregistroko 312. agindu zk.) ordezkari izendatzea, ondorioz, gaur egun kargua betetzen duten pertsonak (Malentxo Arruabarrena Julián eta José Luis Cimiano Ruiz) kargua uzten dutelarik.

Patronatutako lehendakaria: diputatu nagusi Javier de Andrés Guerra.

Patronatuko kidea: Euskara, Kultura eta Kirol foru diputatua Iciar Lamarain Cenitagoya.

Bigarren.- Erabaki honek onartzen den egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 26a.- Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Lege Araubidearen Zuzendaria, JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

En su virtud, a propuesta del Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

ACUERDO

Primero.- Designar a las personas que a continuación se expresan como miembros del Patronato de la FUNDACIÓN VALLE SALADO DE AÑANA-AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA (PATRONATO) (número de orden 287 del Registro de Entidades participadas por la Administración Foral) cesando, en consecuencia, a las personas que desempeñan actualmente cargos en el Patronato (Malentxo Arruabarrena Julián y José Luis Cimiano Ruiz):

Javier de Andrés Guerra, Diputado General, quien ostentará la Presidencia.

Para el cargo de vocal del Patronato: a la Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte, Iciar Lamarain Cenitagoya.

Segundo.- El presente Acuerdo producirá efectos desde el mismo día de su aprobación, sin perjuicio de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2011.- Diputado General, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.- Director de Régimen Jurídico, JESÚS MARÍA ELORZA FERNÁNDEZ.

Foru Aginduak

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

4601

1/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 28koa, Arabako Lurralde Historikoko ehiza jarduera 2011-2012 denboraldirako arautzen duena.

Arabako Lurralde Historikoak badu ahalmena, erkidego osoko erakundeek arautu ez dituzten arlo guztietan, ehiza jarduerari buruzko arauak garatzeko, baldin eta erakunde horiek eman dituzten arauetara moldatzen bada. Ahalmen hori erabiliz, Arabako Lurralde Historikoko Ehizari buruzko ekainaren 14ko 8/2004 Foru Araua onartu zen. Foru arau horren 32. artikulua ezartzen du Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak onartuko duela Arabako Lurralde Historikoan ehizan aritzeko arautegia. Arautegi horretan honakoak zehaztuko dira gutxienez: ehizaren eta merkaturatzearen aldetik interesa duten espezieak, arautegiak, leku desberdinetan espezie desberdinen ehizarako aplikagarri diren aldiak, egun eta ordu baliodunak, ehizan egiteko modalitateak eta harrapaketak adierazita.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 31. artikuluan zehazten ditu zeintzuk diren foru aldundiek urtero eman behar dituzten debekualdi aginduetan gutxienez jaso behar diren edukiak.

Kontuan hartu dira ehizaren urteko araupetzean eragiten duten eta hauetatik eratortzen diren aldeak: estatuko araudian, Ehiza erregelamendua eta Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legea; Europako Batasuneko 2009/147/CE eta 92/43/CEE zuzentarauak; eta Bernako 1979ko Hitzarmena.

Araudi hori betez, Ehiza Lurralde Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an esandakoa entzunda, eta aitortzen zaizkidan ahalmenak baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT

1. artikulua.- Baimendutako egunak eta orduak:

1. Oro har, ehiza esparru bakoitzeko baldintza tekniko-zinegetikoen agiriak jasotzen dutena gorabehera, Arabako Lurralde Historikoko ehiza esparruetan ehizan aritzeko baimendutako egunak honakoak izango dira: aldi baimenduaren ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

4601

ORDEN FORAL 1/2011 de 28 de julio, reguladora del ejercicio de la caza en el Territorio Histórico de Álava para la temporada 2011-2012.

El Territorio Histórico de Álava tiene potestad para desarrollar normativamente la actividad cinegética en todo aquello que no haya sido regulado por las Instituciones Comunes y siempre que se ajuste a las normas emanadas de ellas. En el ejercicio de esta potestad se aprobó la Norma Foral 8/2004, de 14 de junio, de Caza del Territorio Histórico de Álava, cuyo artículo 32 establece que el Departamento competente, en materia cinegética, de la Diputación Foral, oído el Consejo Territorial de Caza, aprobará la Orden Foral anual reguladora del ejercicio de la caza en el Territorio Histórico en la que se determinarán, al menos, las especies de interés cinegético y comercializables, las regulaciones, las épocas, días y horas hábiles de caza aplicables a las distintas especies en las diversas zonas, con expresión de las distintas modalidades y capturas permitidas.

Así mismo, la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza del País Vasco, en su artículo 31, especifica los contenidos mínimos que deberán contener las ordenes forales de vedas que las diputaciones forales deben dictar anualmente.

Teniendo en cuenta aquellos aspectos que inciden en la regulación anual de la caza y que se derivan de la normativa estatal - Reglamento de Caza y Ley 42/2007 de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, de las Directivas Comunitarias 2009/147/CE y 92/43/CEE y del Convenio de Berna, de 1979.

En cumplimiento de esta normativa, en virtud de las facultades que me competen, consultado el Consejo Territorial de Caza reunido al efecto el pasado día 28 de junio de 2011.

DISPONGO

Artículo 1.- Días y horarios hábiles:

1. Con carácter general, a reserva de lo que los respectivos Pliegos de Condiciones Técnico - Cinegéticas de cada coto de caza indiquen, son días hábiles para el ejercicio de la caza en los Cotos de Caza del Territorio Histórico de Álava los jueves, sábados, domingos y festivos del periodo hábil.



Aprobetxamendu komuneko ehiza esparruetan bakarrik izango dira ehiza egunak ostegunak aldi baimenduaren barruan. Ehizari buruzko 2/2011 Legearen 14.1 artikulua aplikatuz, bakar-bakarrik harrapatuko dira esparru horietan espezie migratzaileak (galeperra eta usapala), Arabako Foru Aldundiak ez baitu finkatu ehiza araupetze zehatza beste espezie batzuetarako toki horietan.

Halaber, espezie batzuei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren eskumendun sailak ehiza esparru bakoitzerako onartutako ehizako jarraipen planetan zehazten diren egunak hartuko dira kontuan.

2. Ehizarako orduak, oro har, 08:30etik 17:30era izango dira, debekualdi erdian, ehiza postu finkoetatik eta berariazko baimen garioan izan ezik.

2. artikulua.- Baimendutako aldiak eta berariazko arauak:

Salbuespenak aparte, 2011/2012 denboraldian ehizatzeo baimendutako aldiak honakoak dira:

A) Debekualdi erdia:

Abuztuaren 15etik irailaren 11ra, biak barne, ehiza esparruetan ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, eta aprobetxamendu komuneko ehiza esparruetan, bakar-bakarrik ostegunetan. Egunsentitik ilunabarera arte bi kasuetan.

Harrapa daitezkeen espezieak hauexek dira: galeper arrunta, belabeltza, bele txikia, haitz usoa, pagausoa eta txoloma, usapala, mika eta azeria. Aprobetxamendu komuneko ehiza esparruetan, soilik harrapatuko dira galeperak eta usapalak. Esparru guztietan ezartzen da hiru usapalen kupoa pertsona eta egun bakoitzeko.

Postu finkoetatik eta debekualdi erdiko sasoiaren apezua edo apezurik gabe ehizatzen bada, modalitate horretako ehiza arau bereziak aplikatuko dira.

B) Ehiza xehea:

Urriaren 12tik urtarrilaren 29ra, biak barne.

1. artikuluan aprobetxamendu komuneko ehiza esparruetarako finkatutako salbuespena aparte, foru agindu honetako I. eranskinean zerrendatzen diren gain, ondoren aipatzen direnak ere ehiza xehe dira:

1. Untxia (*Oryctolagus cuniculus*): Urriaren 12tik urtarrilaren 29ra, harrapatzeo kuporik gabe.

2. Erbia (*Lepus sp.*): Azaroaren 1etik urtarrilaren 6ra, biak barne. Pertsona bakoitzak eguneko erbi bat baino ezin izango du hil.

3. Eperra (*Alectoris rufa*): Azaroaren 1etik urtarrilaren 6ra, biak barne. Pertsona bakoitzak eguneko hiru eper baino ezin izango ditu hil.

4. Oilagorra (*Scolopax rusticola*): Urriaren 12tik urtarrilaren 29ra, biak barne. Espezie hau debekatuta dago zelatan harrapatzea baimendutako aldiari. Saltoan eta txakurrez baino ezin izango da harrapatu. Pertsona bakoitzak eguneko hiru oilagor baino ezin izango ditu hil.

5. Uso migratzaileak eta birigarroak: behar bezala baimendutako uso postuetan irailako azken igandetik azaroko azken igandera arte, biak barne, egun guztietan. Horien ostean, urtarrilaren 29ra arte, harrapatu ahal izango dira postu finkoetatik bakar-bakarrik 1. artikuluan zehaztutako ehiza egun baliodunetan. Arabako Errioxako ehiza esparruetako baimendutako birigarro postuetan azaro, abendu eta urtarileko egun guztietan harrapatu ahal izango dira birigarroak.

Baimendutako postu finkoetatik egunsentitik 17:30era arte harrapatu ahal izango dira.

Postu horien kokapena, batetik besterainoko gutxienezko aldea eta edozein ehiza esparrutan haietaz baliatzeko eskubidea foru agindu baten bidez arautuko dira, eta bertan agertuko dira berariazko arauak.

C) Ehiza larria:

1. Basurdea (*Sus scrofa*): Irailaren 4tik otsailaren 5era, biak barne. Irailaren 4tik urriaren 12ra eta urtarrilaren 29tik otsailaren 5era uxaketa bidez edo zelatan arkua erabilia baino ezin izango da harrapatu basurdea. Urtarrilaren 6tik aurrera ezin izango da harkaitz inguruetan uxaketa bidez ehizan aritu. Eskopetak zorrotik atera gabe eraman beharko dituzte ehiza postuetaraino.

En los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común los únicos días de caza serán los jueves dentro del periodo hábil. En aplicación del artículo 14.1 de la Ley de Caza 2/2011, en dichos terrenos sólo podrá practicarse la caza de especies migratorias (codorniz y tórtola europea), al no haberse establecido por la Diputación Foral de Álava regulación cinegética específica para otras especies en estos lugares.

Para determinadas especies se tendrán en cuenta los días concretos indicados en los Planes de Seguimiento Cinegético aprobados en cada coto por el Departamento foral competente.

2. Con carácter general, el horario de caza es el comprendido entre las 8:30 h y las 17:30 h, salvo en la media veda, caza desde puestos fijos y autorizaciones expresas.

Artículo 2.- Períodos hábiles y regulación específica:

Sin perjuicio de las excepciones que se señalen, son periodos hábiles de caza para la temporada 2011/2012 los siguientes:

A) - Media Veda:

Desde el 15 de agosto al 11 de septiembre, ambos inclusive; en los cotos de caza los jueves, sábados, domingos y festivos y en los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común, únicamente los jueves. En ambos casos en horario de sol a sol.

Las especies cazables son las siguientes: codorniz común, corneja negra, grajilla, paloma bravía, torcaz y zurita, tórtola europea, urraca y zorro. En los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común, las únicas especie cazables serán la codorniz común y la tórtola europea. Para todos los terrenos se establece un cupo de capturas de tres tórtolas europeas por persona y día.

Quando se trate de caza con o sin cimbela desde puestos fijos en la época de media veda serán de aplicación las normas específicas de la caza en esta modalidad.

B) Caza Menor en general:

Desde el día 12 de octubre hasta el 29 de enero, ambos inclusive.

Con la salvedad establecida en el artículo 1 para los terrenos cinegéticos de aprovechamiento común, además de las que se relacionan en el Anexo I de esta Orden Foral, son especies incluidas en este grupo de caza menor:

1. Conejo (*Oryctolagus cuniculus*): Desde el 12 de octubre hasta el 29 de enero, sin cupo de capturas.

2. Liebre (*Lepus sp.*): Del 1 de noviembre al 6 de enero, ambos inclusive. Se establece un cupo de una liebre por persona y día.

3. Perdiz roja (*Alectoris rufa*): Del 1 de noviembre al 6 de enero, ambos inclusive. Se establece un cupo de tres perdices rojas por persona y día.

4. Becada (*Scolopax rusticola*): Desde el 12 de octubre hasta el 29 de enero, ambos inclusive. Queda prohibida la caza de esta especie a la espera durante todo su período hábil, permitiéndose únicamente la modalidad de "al salto" y con perro. Se establece un cupo de tres becadas por persona y día.

5. Palomas migratorias y zorrales (malvices): En los puestos de paloma debidamente autorizados, desde el último domingo de septiembre al último domingo de noviembre, ambos inclusive, sin limitación de días hábiles. Después de estas fechas, hasta el 29 de enero, se podrán cazar, desde puestos fijos, únicamente los días hábiles de caza especificados en el artículo 1. En los puestos de malviz debidamente autorizados de los cotos de Rioja Alavesa, se podrá cazar todos los días de los meses de noviembre, diciembre y enero.

En todos los casos, el horario de caza desde los puestos fijos autorizados será desde el Orto hasta las 17:30 h.

La situación de estos puestos, su separación mínima, las prohibiciones y el derecho a utilizarlos en cualquier terreno cinegético se regularán mediante la Orden Foral complementaria y específica que se publicará en su momento.

C) Caza Mayor:

1. Jabalí (*Sus scrofa*): Desde el 4 de septiembre hasta el 5 de febrero, ambos inclusive. Desde el 4 de septiembre hasta el día 12 de octubre y desde el 29 de enero al 5 de febrero, únicamente se permite la caza del jabalí al rececho con arco y en batida, no pudiéndose celebrar éstas en zonas rupícolas a partir del día 6 de enero. Las escopetas se deberán transportar hasta los puestos de caza enfundadas



Basurde uxaldirik ez daukaten esparruek saltoka harrapatu ahalko dute, balaz, gehienez ere lau txakurrek eta bi ehiztarik osatutako taldeetan, txaleko deigarriak soinean jarrita. Salbuespen hori kenduta, basurdea bakarrik harrapatu ahalko da uxaldietan, zelatan arkua erabilia eta itxaroten egonda, eta ez da inolaz ere baimenduko eme gidaria, ondoan kumeak dituzten emeak edo marradun kumeak ehizatzea.

Basurdea uxaldietan harrapatzeko egunak larunbat, igande eta jaiegunak izango dira. 15:30ak arte.

Uxaketa-ehizaldiak ezin izango dira egin 160 ha-tik gorako azaleretan. Gutxienez sei uxatzaile eta hamar txakur egongo dira, behar bezala identifikatuta, eta ehiztariak hamabi gutxienez eta berrogeita bost gehienez izango dira. Ehiztariak zein uxatzaileek txaleko deigarri edo fosforeszenteak eraman beharko dituzte soinean ondo ikusteko modukoak uxaldiak dirauen bitartean. Halaber, uxaldi bat egiten den artean, ezinbestekoa da bideetan eta sarbideetan egiten ari diren uxaketen berri emateko kartelak jartzea, II. eranskinean agertzen den ereduaren arabera.

Ehiza esparru elkartuek ACCA eta EHIZA ehiza esparruen elkarte bidez eskatuko dituzte basurde uxaldiak; elkartuta ez daudenek, berriz, zuzenean ehiza arloan eskumena duen sailari.

Basurde uxaldietarako eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzura bidali beharko dira, uztailaren 28a baino lehen, ehizaldiak zein egunetan egingo diren zehaztuz. Era berean, ehiza taldeak osatzen dituzten pertsonen izenen zerrenda aurkeztuko da. Izen-deiturak eta NANA adierazi beharko da, baita arduradunarenak eta haren ordekoarenak ere.

Uxaldi bakoitzean gehienez ere lau ehiztari gonbidatu sartu ahalko dira, eta esparruan ehizan aritzeko kasuan kasuko baimena eduki beharko dute. Behin uxaldia igarotakoan, gonbidatu hauen zerrenda bidali beharko da Mendi Zerbitzura.

2. Oreina (*Cervus elaphus*): espezie honen ehiza zehaztuko diren esparruetan baino ez da baimenduko, eskumena duen sailak ezartzen dituen kupo eta baldintzetan.

3. Orkatza (*Capreolus capreolus*): Kasuan kasuko foru aginduz finkatuko da berariazko araudia horien aprobetxamendurako.

3. artikulua.- Faunaren babesa oro har:

3.1. Debekuak:

Euskadiko Natura Babesteko 16/1994 Legeak debekatu egiten du I. eranskinean jasotzen ez diren espezieak ehizatzea.

Ehizatu daitezkeen espezieei dagokienez, debekatuta dago haztegiak eta habiak suntsitzea edozein urte arotan arrautzak edo kumeak hartzea edo atxikitzea, eta kumeak ehizatu, harrapatu, edozein eratan jazarri eta atxikitzea, horretarako ezarritako aldietatik kanpo.

3.2. Kupoak. Ehizagai kupoak Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailak onartutako ehizako jarraipen planetan zehaztutakoak izango dira.

3.3. Baimen bereziak behar dituzten ehiza motak:

3.3.1 Arkuzko ehiza urriaren 27ko 155/1999 Foru Arauren bidez arautzen da. Arkuzko ehizan aritu nahi duten pertsonak ehiza arloan eskumenak dituen sailaren baimen berezi bat lortu beharko dute aurretik; horretarako, ehiza elkarteek aldi-aldian antolatzen dituzten gaitasun probak gainditu beharko dituzte.

3.3.2 Untxia huronez ehizatze baimen berezia behar da, ehiza arloan eskumenak dituen sailak eman behar duena.

3.3.3. Ehiza hegaztiez ehizatze arauak foru agindu berezi baten bidez finkatuko dira.

3.4. Debekatutako bideak:

Ehiza-espezieak harrapatzeko debekatutako bideak honakoak dira: lakioak, likak, amuak, itsututako edo atal bat kenduta duten hegazti biziak apeu gisa erabiltzea, grabagailuak, aparatu elektrotututzaileak, lehegailuak, sareak, zepo-tranpak, karnata pozoitsu edo lasaigarriak,

Los acotados que no dispongan de batidas de jabalí podrán cazarlo al salto, con munición de bala, en grupos formados por un máximo de cuatro perros y dos personas cazadoras que deberán llevar colocados los correspondientes chalecos de colores llamativos. Hecha esta salvedad, el jabalí únicamente se podrá cazar en batidas, al rececho con arco y a la espera y, en ningún caso, se permitirá la caza de rayones ni de la hembra guiadora o de hembras seguidas de crías.

Los días hábiles para la caza del jabalí en batidas, serán los sábados, domingos y festivos. El horario de finalización será las 15:30 h.

Los ganchos o batidas se harán en una superficie igual o menor a 160 ha. Deberán disponer de un mínimo de doce personas cazadoras y un máximo de cuarenta y cinco, así como de un mínimo de seis personas batidoras y diez perros debidamente identificados. Tanto las personas cazadoras como las batidoras llevarán puestos y visibles chalecos de colores llamativos durante todo el tiempo que dure la batida. Igualmente, durante la celebración de una batida, es obligatoria la colocación en los caminos y accesos a la zona a batir de los carteles informativos según el modelo indicado en el Anexo II.

Los cotos asociados solicitarán las batidas de jabalí a través de las asociaciones de cotos de caza ACCA y EHIZA, mientras que los no asociados las solicitarán directamente al Departamento competente en materia cinegética.

Las solicitudes de batidas de jabalí se remitirán al Servicio de Montes de la Diputación Foral antes del día 28 de julio, debiendo figurar en las mismas las fechas en las que desean efectuar. Igualmente, se aportará un listado con las personas cazadoras componentes de las cuadrillas - indicando nombre, apellidos y DNI- y señalando los datos del responsable y suplente de las batidas.

En cada batida se podrá incluir un máximo de cuatro personas cazadoras que se considerarán como invitadas y que deberán disponer de la correspondiente autorización para cazar en el coto. Una vez efectuada la batida, la relación de estos invitados se deberá remitirse al Servicio de Montes.

2. Ciervo (*Cervus elaphus*): Únicamente se permitirá la caza de esta especie en los cotos que se determinen, con los cupos y condiciones que establezca el Departamento competente.

3. Corzo (*Capreolus capreolus*): Mediante la correspondiente Orden Foral se establecerá la normativa específica para su aprovechamiento.

Artículo 3. Protección a la fauna en general:

3.1. Prohibiciones:

La Ley 16/94 de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, prohíbe la caza de las especies no incluidas en el Anexo I.

Por lo que respecta a las especies cazables, queda prohibida la destrucción de vivares y nidos, la recogida de huevos y crías o retenerlas, en cualquier época del año, así como cazarlas, capturarlas, perseguirlas de cualquier forma y retenerlas fuera de las épocas habilitadas para ello.

3.2. Cupos. Los cupos de las especies cinegéticas serán los que figuren en los respectivos Planes de Seguimiento Cinegético aprobados por el Departamento competente en materia de caza de la Diputación Foral de Álava.

3.3. Modalidades de caza que requieren permisos especiales:

3.3.1 La caza con arco se regula mediante la Orden Foral 155/99, de 27 de octubre. Las personas que deseen practicar la caza con arco necesitarán obtener previamente un permiso especial del Departamento competente en materia cinegética que se otorgará una vez superadas las pruebas de aptitud organizadas periódicamente por las federaciones de caza.

3.3.2 La caza del conejo con hurón requiere un permiso especial que debe conceder el Departamento competente en materia de caza.

3.3.3. La caza con aves de cetrería se establecerá mediante una Orden Foral específica.

3.4. Métodos prohibidos:

Los métodos prohibidos para la captura de las especies cinegéticas son los lazos, ligas, anzuelos, aves vivas, cegadas o mutiladas, utilizadas como reclamos, aparatos grabadores, aparatos electrocutantes, explosivos, redes, trampas-cepo, cebos envenenados o tranquiliz-



arma erdiautomatikoak edo automatikoak, kargadorea bi kartutxo baino gehiagokoa bada, hegazkinak, ibilgailuak eta txalupak.

Gainera debekatuta dago ehizatzea:

3.4.1. Eratzun perkusiozko 22 kalibreko errifleak eta errifleak erabilia debekualdi erdian.

3.4.2. Aire edo beste gas konprimituz eragindako armak erabilia.

3.4.3. Postak erabilia, postatzat 2,5 gramo edo gehiagoko pisua duten jaurtigaik hartuta. Halaber, debekatu egiten da horrelakorik edukitzea ehizan aritzean.

3.4.4. Balak erabilia ehiza xehean, eta perdigoizko kartutxoak erabilia ehiza larrian, horrelakotzat 2,5 gramotik beherako pisua duten jaurtigaik hartuta. Ehiza larria balaz baino ez da egingo, eta debekatua dago perdigoizko kartutxoak edukitzea uxaldian, itxaroten edo zelatan ari den bitartean. Era berean, ehiza larrian, petardoak eta klaxonak debekatuta egongo dira.

3.4.5. Balezta erabilia.

3.4.6. Ondoko arrazetako txakurrak erabilia: Pit Bull Terrierra, Staffordshire Bull Terrierra, American Staffordshire Terrierra, Rottweilerra, Dogo argentinarra, Fila brasildarra, Tosa Inua, Akita Inua, Harrapari mallorcarra, Dogo alemaniarra, Bull Terrierra, Bullmastiffa, Artzakur napoliarra, Dogo tibetarra, Airedale Terrierra, Bordeleko Dogoa, Cane korsikarra, Beauceko Artzain-txakurra, Dobermana, Artzain-txakur alemaniarra, Piriniotako Artzakurra, Artzakur espainiarra, Harrapari kanariarra, Kaukasoko Artzain-txakurra eta horien arteko gurutzatzeak, artzakurren eta ehiza-txakurren arteko gurutzatzeetatik sortutakoak izan ezik.

3.4.7. Ehizean animalia altzarazita aritzeko bi zakur baino gehiago eskupetako, eta eskutan hiru ehiztari baino gehiago erabiltzea, Kuartangoko ehiza esparru sozialean eta ehizako industri aldeetan izan ezik. Hala ere, untxi ehizan hiru txakur erabili ahal izango dira gehienez.

3.4.8. Uribarri Ganboa eta Urrunagako urtegiatoko ehiza esparruetan. Berrostegietako ehiza aterpetan, Gasteizko Goi Mendietan, Caicedo-Yusoko edo Arreoko aintziran, Zuhatzako irlan eta Zamukoa mendian, Lakotxarango erkidean, Layaza barrutian Leza eta Samaniego tartean, eta Maroñoko urtegian. Ureztaketarako ur-putzuetan eta Araka gunen militarrean.

3.4.9. Landutako lurzoruetan uzta oraindik jaso gabe badago.

3.4.10. Argi, esku argi edo bestelako argi tresnekin, Habitaten Zuzentzararen VI. eranskinean adierazi bezala, baita gauez tiro egitea ahalbidetzen duten bisoreekin.

3.5 Beste debeku batzuk:

3.5.1 Debekualdian edo baimendutako aldiko egun eta ordu balio gabeetan, edozein lurzoru zinegetikotatik su-armak edo aire konprimituz eragindakoak eramanez igarotzea, zorroan badaude ere, horretarako baimen berezirik izan ezean.

3.5.2 Ehiza larriko espezie zinegetikoak ehiza garaian gizontzea, arku ehizaren kasuan izan ezik.

3.5.3 Basa-espezieak ikustatzeko fokuak erabiltzea, horretarako baimen berezirik izan ezean.

3.6. Txapelketak: baimendutako alditik kanpo horrelakoak egiteko baimena eman daiteke, Arabako Ehiza Federazioak eskatuz gero.

4. artikulua.- Nekazaritzarako, abeltzaintzarako, mendietarako eta ehizarako kaltegarri diren espezieak kontrolatzeko neurriak:

Espezie horiek kontrolatzeko prozedurarik egokiena baimendu ahal izango da espezie horiek eragindako kalteak agertzen dituzten lekuetan aplikatzeko, ohiko ehiza-sistemen ordezturik prebentibo eta alternatiboak bereziki bultzatuz.

5. artikulua.- Neurri osagarriak:

Animalien bizitzarako eta nekazaritza lanetarako dakarren arriskuagatik, debekatuta dago erabilitako kartutxo zorroak ehiza esparruan botata uztea. Artikulu honek jasotakoa betetzen ez bada, ehiza esparruaren elkarre, klub edo pertsona esleipenduna izango da erantzule subsidiarioa.

6. artikulua.- Unean uneko neurriak:

Espezieen iraupenerako batere onuragarriak ez diren gertaera klimatikoak, biologikoak edo bestelakoak direla-eta Arabako Lurralde Historikoko edo eskualde bateko aberastasun zinegetikoak kalterik izan badezake, horiei aurre hartzearen, urgentzia horretarako oztopo ez

zantes, armas semiautomáticas o automáticas cuyo cargador pueda contener más de 2 cartuchos, aviones, vehículos automóviles y barcas.

Además está prohibida la caza:

3.4.1. Con rifles calibre 22, de percusión anular y con rifles en la media veda.

3.4.2. Con armas accionadas por aire u otros gases comprimidos.

3.4.3. Con postas, entendiéndose por tales aquellos proyectiles cuyo peso sea igual o superior a 2,5 gramos. Asimismo, se prohíbe su tenencia mientras se esté practicando el ejercicio de la caza.

3.4.4. Con balas en el caso de la caza menor y con cartuchos de perdigones en el caso de la caza mayor, entendiéndose por tales aquellos proyectiles cuyo peso sea inferior a 2,5 gramos. La caza mayor sólo se practicará con bala, estando prohibida igualmente la tenencia de cartuchos de perdigones mientras se esté practicando el ejercicio de la caza en batidas, esperas o recechos. También estarán prohibidos los petardos y las bocinas en las batidas de caza mayor.

3.4.5. Con ballesta.

3.4.6. Con las siguientes razas de perros: Pit Bull Terrier, Staffordshire Bull Terrier, American Staffordshire Terrier, Rottweiler, Dogo Argentino, Fila Brasileiro, Tosa Inu y Akita Inu, así como el Presa Mallorquín, Dogo Alemán, Bull Terrier, Bullmastiff, Mastín Napolitano, Dogo del Tibet, Airedale Terrier, Dogo de Burdeos, Cane Corso, Pastor de Beauce, Doberman, Pastor Alemán, Mastín de los Pirineos, Mastín Español, Presa Canario, Pastor del Cáucaso y sus cruces, a excepción del cruce de Mastín con Podenco.

3.4.7. Con más de dos perros por escopeta en la caza al salto y más de tres personas cazadoras en mano, salvo en el Coto Social de Kuartango y en las zonas industriales de caza. No obstante, en la caza del conejo se podrá utilizar un máximo de tres perros.

3.4.8. En las reservas de caza de los embalses de Ullibarri Gamboa y Urrunaga. En los refugios de caza de Berrostegietan, Montes Altos de Vitoria, Lago de Caicedo Yuso o Arreo, Isla de Zuaza y monte Zamukoa, Monte Comunero de Lakotxarán, término de Layaza, entre Leza y Samaniego, y el embalse de Maroño. En las balsas para riego y en la zona militar de Araka.

3.4.9. En los terrenos cultivados en los que aún no se haya recogido la cosecha.

3.4.10. Con faros, linternas u otros aparatos luminosos, según lo indicado en el Anexo VI de la Directiva de Hábitats, así como con visores que permitan el disparo nocturno.

3.5 Otras prohibiciones:

3.5.1 Transitar, si no se dispone de la oportuna autorización, por cualquier tipo de terreno cinegético con armas de fuego, así como con las accionadas por aire comprimido, aunque se encuentren enfundadas, tanto en época de veda como en días y horas no hábiles dentro de la temporada hábil.

3.5.2 Cebar a las especies cinegéticas de caza mayor en época de caza, excepto en la caza con arco.

3.5.3 Utilizar focos para la observación de especies silvestres, si no se dispone de la debida autorización.

3.6. Campeonatos: Fuera de la temporada hábil, a petición de la Federación Territorial de Caza de Álava, podrá autorizarse su celebración.

Artículo 4. Medidas de control por daños a la agricultura, ganadería, montes y fauna silvestre:

En los terrenos donde circunstancialmente aparezcan daños causados por estas especies se podrá autorizar el procedimiento más adecuado para su control, promoviendo especialmente medidas preventivas y alternativas a los métodos de caza habituales.

Artículo 5. Medidas complementarias:

Por el peligro que supone para la vida animal y para la realización de las labores agrícolas se prohíbe abandonar en el terreno de caza las fundas de los cartuchos utilizados. La sociedad, club o persona adjudicataria del acotado será, en todo caso, responsable subsidiario por el incumplimiento de lo previsto en este artículo.

Artículo 6. Medidas circunstanciales:

Con el fin de prevenir los daños que, por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras extremadamente desfavorables para la conservación de las especies, pudieran ocasionarse a la riqueza cinegética de Álava o de una comarca, el Departamento competente en



bada, eta Ehiza Lurralde Kontseiluari entzun ondoren, ehiza arloan eskumenak dituen sailak espezie horietako batzuk edo horiek guztiak harrapatzeko aldi baimenduak aldatzeko ahalmena hartu ahal izango du beretzat. Erabaki hori hedabide nagusietan argitaratuko da eta ondoren ALHAOn foru arau bidez eta ahal bezain azkar.

7. artikulua.- Osasun neurriak:

Zernahi ehizagai sartu edo ingururen bat birpopulatu aurretik ehiza arloan eskumenak dituen sailaren baimena behar da, ekainaren 28ko 48/2011 Foru Dekretuan, Arabako Lurralde Historikoan ehiza espezieak ustiatzea, birpopulatuzea eta askatzea, espezie horiek ehizarako edo erakusteko erabiltzea, eta ehiza eremu industrialen eta txakur heziketarako zonaldeen funtzionamendua arautzen dituenear, xedatutakoaren arabera.

8. artikulua.- Antolaketa neurriak:

Ehiztari bakoitzak 2012ko otsailaren 15a baino lehen eta bere ehiza esparruaren bitartez "Ehiza egunen eta harrapakinen kontrola" eta "Ehiztariari eta 2011/2012 ehiza denboraldiari buruzko datuak" izeneko inprimakiak bidali beharko ditu, behar bezala beteta.

Ehiza esparruko sozietate, klub edo pertsona esleipendunak, berriz, ehiza esparruko harrapakinen zerrenda, arestian aipatutako inprimakiekin batera, Arabako Foru Aldundian ehiza arloan eskumenak dituen sailean aurkeztu beharko du, 2012ko otsailaren 22a baino lehen.

Era berean, harrapaketa baimen berezien agiriak bidali beharko zaizkio sail horri, kasuan kasuko baimenean adierazitako epeetan. Horiek guztiak aurkezten ez badira, foru agindu honetako 10. artikulua aplikatuko da.

Basurdearen uxaldi harrapakinen agiriak aginpidetza duen sailean uxaldia egin eta ondorengo 10 egunetan aurkeztu beharko dira, bai ACCAren edo EHIZAREN bitartez haiekin elkartutako ehiza esparruetan, edo zuzenean, elkartu gabeetan. Epe hori ez betetzeak ekar dezake esparru horretan baimenduta dituen gainerako uxaldiak bertan behera utzi beharra.

9. artikulua. Babes neurriak:

Pertsonen segurtasuna oro har bermatu ahal izateko, gomen datzen da kolore deigarriko txalekoak erabiltzea ehiza xehean aritzean.

10. artikulua. Merkaturatzea:

Irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatzen duenez, Araban merkatalgai eta ehizagai diren espezie zinegetiko bakarrak hauexek dira: basahatea, oreina, galeperra, untxia, orkatza, faisai, basurdea, erbia, pagausoa, eper gorria eta azeria.

11. artikulua.- Kuartangoko ehiza esparru soziala:

Ehiza esparru sozialean ehizan egiteko eskabideak irailaren 1etik 15era aurkeztuko dira, eta horren funtzionamendurako arauak kasuan kasuko foru aginduz argitaratuko dira.

12. atala.- Arau-haustek:

Foru agindu honetako arauak hausten badira, Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak eta ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauak (Arabako Lurralde Historikoko ehizari buruzkoa) ezarritakoaren arabera ezarriko dira zehapenak.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta gelditzen dira foru agindu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

Azken xedapena.

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2011ko uztailaren 28a.- Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

I. ERANSKINA

Ehiza xehe diren espezieak:

Istingor txikia (*Lymnocyptes minimus*), istingor arrunta (*Gallinago gallinago*), hegabera (*Vanellus vanellus*), galeper arrunta (*Coturnix coturnix*), belabelta (*Corvus corone*), arabazozo pikart (*Sturnus vulgaris*),

materia de caza, si lo permite la urgencia y una vez oído el Consejo Territorial de Caza, podrá modificar los períodos hábiles de caza de algunas de estas especies o de todas ellas. Esta decisión se hará pública en los principales medios de comunicación, publicándose posteriormente en el BOTHA, a la mayor brevedad posible, mediante la correspondiente Orden Foral.

Artículo 7. Medidas sanitarias:

La repoblación o introducción de cualquier especie cinegética estará sometida a la autorización del Departamento competente en materia cinegética en los términos del Decreto Foral 48/2011, de 28 de junio, por el que se regula la producción, repoblación y suelta de especies cinegéticas en el Territorio Histórico de Álava, así como su uso para caza o exhibición y el funcionamiento de las zonas industriales de caza y las zonas de adiestramiento.

Artículo 8. Medidas de ordenación:

Cada persona cazadora remitirá, antes del 15 de febrero de 2012 y a través de su coto, los impresos denominados "control de las jornadas de caza y capturas" y "datos del cazador o cazadora y de la temporada de caza 2011/2012", debidamente cumplimentados.

Por su parte, la sociedad, club o persona adjudicataria de los cotos caza, entregará al Departamento competente en materia de caza de la Diputación Foral de Álava el resumen de las capturas del coto, junto con los impresos ya citados, antes del 22 de febrero de 2012.

Igualmente, se remitirán a dicho Departamento los partes de los permisos especiales de captura, en los plazos señalados en la respectiva autorización. El incumplimiento de estas entregas dará lugar a la aplicación de lo dispuesto en el artículo 10 de esta Orden Foral.

Los partes de capturas de las batidas de jabalí se entregarán en el Departamento competente en el plazo de diez días siguientes al de celebración de la batida, bien a través de ACCA o de EHIZA en los cotos asociados o directamente en los no asociados. El incumplimiento de dicho plazo podrá dar lugar a la suspensión del resto de batidas que pueda tener autorizadas el coto.

Artículo 9. Medidas de protección:

Con el fin de favorecer la seguridad de las personas en general se recomienda, durante el ejercicio de la caza menor, el uso de chalecos de colores llamativos.

Artículo 10. Comercialización:

Según dispone el Real Decreto 1.118/89, de 15 de septiembre, las únicas especies cinegéticas comercializables y cazables en Álava son: ánade azulón, ciervo, codorniz común, conejo, corzo, faisán, jabalí, liebre, paloma torcaz, perdiz roja y zorro.

Artículo 11. Coto Social de Kuartango:

El plazo de presentación de las solicitudes para cazar en el Coto Social será del 1 al 15 de septiembre, publicándose la normativa que regulará su funcionamiento mediante la correspondiente Orden Foral.

Artículo 12. Infracciones:

Las infracciones a la presente Orden Foral serán sancionadas según la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza y la Norma Foral 8/2004, de 14 de junio, de Caza del Territorio Histórico de Álava.

Disposición derogatoria

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden Foral.

Disposición final.

La presente Orden Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz a, 28 de julio de 2011.- Diputada Foral de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

ANEXO I

Especies consideradas de caza menor:

Agachadiza chica (*Lymnocyptes minimus*), agachadiza común (*Gallinago gallinago*), avefría (*Vanellus vanellus*), Codorniz común (*Coturnix coturnix*), corneja negra (*Corvus corone*), estornino pinto (*Sturnus*

faisaia (*Phasianus colchicus*), bele txikia (*Corvus monedula*), haitz usoa (*Columba livia*), pagausoa (*Columba palumbus*), txoloma (*Columba oenas*), usapala (*Streptopelia turtur*), mika (*Pica pica*), birigarro txiki (*Turdus iliacus*), garraztarro (*Turdus visvivorus*), birigarro arrunta (*Turdus philomelus*), durdula (*Turdus pilaris*) eta azeria (*Vulpes vulpes*).

Uretako hegaztiak: Ipar ahate (*Anas strepera*), ahate buztanluze (*Anas acuta*), antzara hankagorritzta (*Anser anser*), udako zertzeta (*Anas querquedula*), zertzeta arrunta (*Anas crecca*), ahate mokoazabal (*Anas clypeata*), kopetazuri arrunta (*Fulica atra*), murgilari arrunta (*Aythya ferina*), murgilari mottodun (*Aythya fuligula*) eta ahate txistularia (*Anas penelope*).

II. ERANSKINA

Ehiza larriaren uxaldietan nahitaez jarri behar den seinalearen ezaugarriak:

Neurriak: 50 cm x 35 cm

Materiala: Aluminioa

Kolorea: Hondo zuriaren gainean gorriz perfilatutako hirukia (3,5 zentimetroko lodierarekin), hiruki barruan basurde beltz batekin.

Testua: KONTUZ (goiko aldean).

UXALDIA (beheko aldean).

Testuaren kolorea: Beltza

Testuaren lodiera: 5 zentimetroko altuera

2 zentimetroko zabalera

vulgaris), faisán (*Phasianus colchicus*), grajilla (*Corvus monedula*), paloma bravía (*Columba livia*), paloma torcaz (*Columba palumbus*), paloma zurita (*Columba oenas*), tórtola europea (*Streptopelia turtur*), Urraca (*Pica pica*), zorzal alirrojo (*Turdus iliacus*), zorzal charlo (*Turdus viscivorus*), zorzal común (*Turdus philomelus*), zorzal real (*Turdus pilaris*) y zorro (*Vulpes vulpes*).

Aves acuáticas: Ánade friso (*Anas strepera*), ánade rabudo (*Anas acuta*), Ánsar común (*Anser anser*), cerceta carretona (*Anas querquedula*), cerceta común (*Anas crecca*), cuchara común (*Anas clypeata*), focha común (*Fulica atra*), porrón europeo (*Aythya ferina*), porrón moñudo (*Aythya fuligula*) y silbón europeo (*Anas penelope*).

ANEXO II

Características de la señalización obligatoria de las batidas de caza mayor:

Dimensiones: 50 cm. x 35 cm.

Material: Aluminio

Color: Sobre fondo blanco, un triángulo perfilado en rojo (de 3,5 cm. de grosor) con un jabalí negro en su interior.

Texto: ATENCIÓN (Parte superior)

BATIDA (Parte inferior)

Color texto: Negro

Grosor texto: 5 cm. de altura

2 cm. de anchura

KONTUZ/ATENCIÓN



UXALDIA/BATIDA